


GERNIKAKO ARBOLARI¹

Beardegu, bai, denok
Buruz ondo artu,
Itz bi arbolari nik
Nai dizkat apaindu;
Jarri dedin jendea
Iñondik jakintsu,
Orren egoera gaur
Nola dan banatu.

¡O! arbola zu zera
Zorroz sustraitua,
Gogoan bear degu
Izan zure ostua;
Ederra eman dezu
Oraindañokua,
Zu zerade arbol bat
Antziñetakoa.

Euskaldunentzat ez da
Iñon arbolikan,
Zu zeradena baño
Obiagorikan;
Beti egin beagu
Guk zuregatikan,
Argiro datorrena
Barren barrendikan.

(1) Composición señalada con *accésit* en los Juegos florales celebrados en esta Ciudad en 1892.

Esnatu oi bagera
Euskaldunjendea,
Agertu bear zaizu
Ostua berdea;
Zañetan ondo zaude
Arbola maitea,
¿Nola liteke guk zu
Bakarrik uztea?

Euskaldunak zauzkagu
Arbol maitatua,
Beti zeradelako
Berdin gabekoa;
Beste zenbaitzenzako
Errabiakoa,
Ez dutelako izan
Guk bezelakoa.

Guipuzkoa ta Bizkaia
Arabar Naparrak,
Obek dira zuretzat
Aizparik onenak;
Orain artian ondo
Izandu diranak,
Eta zuregatikan
Ilko lirakenak.

JOSÉ ZAPIRAIN.

